

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zornetsu	«— Apo zornetsu bat, gezurti amorratu bat, horixe haiz hi!»
zur eta lur	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezta ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren...»
oldarrean	«—Hi bezalakoei bai jana, baita arnasteko airea ere ukatu behar zaizkizue – arrotza oldarrean .»
kirastuna	«Arrotza hortzik gabeko zahar kirastuna zen.»
arbuiagarri	«Amorrazioak astindu zituen poetaren erraiak. Bizilekura sartzea, jana lapurtzea, gauza arbuiagarriak ziren, baina ez oso larriak...»
ziztrin	«...gezurtizat salatzeak, ordea, bere onetik ateratzen zuen, erantzun gogorra eman behar zion zahar ziztrinari .»
kamuts	«Txistua bota eta aizto herdoitu eta kamuts bat gogoz kontra bezala erakutsi zuen.»
ziplo	«Gaztearen irmotasun eta gogortasunak lurrera amildu ziren ziplo , heriotza edo zauri txarren mehatxupean.»
koblakari	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezta ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren...»
pozarren	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezta ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren ...»
alaena	«— Isildu behingoz eta eseri, lerdo alaena .»
xalo	«Hitz egin, kantatu, eta ipurdia antzarak uretatik irtendakoan bezalaxe astintzen duk jende xaloari faltsukeriak kontatzen dizkioan bitartean...»
galeper	«Txistua bota zuen galeper hezur zurietara.»
txistu	« Txistua bota zuen galeper hezur zurietara.»
zitean	«Sarrazenorik ez zuan inon, eta zenbait mandatetan gertatu zuan, ez batean, eta ez zitean izenik.»
aitaren egin	«...koblakariak hiru aldiz egin zuen aitaren eta hatz lodiari muin eman...»
derrigor	« Derrigor kontatu beharko zuen hainbesteko arrakasta ematen zion kontakizuna...»
sarrazeno	« Sarrazenorik ez zuan inon, eta zenbait mandatetan gertatu zuan, ez batean, eta ez zitean izenik.»
muin eman	«...koblakariak hiru aldiz egin zuen aitaren eta hatz lodiari muin eman ...»
sarebegizko kota	«Gizon ederra eta dotorea, sekula ikusitako sarebegizko kotarik distiratsuen zeramaan...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ipurburu	«—Mendateetan, ipurburu! Baina horixe ikusi nituela sarrazenoak...»
tzar	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»
tontokote	«A ze tontokotea bidali didan Jaungoikoak horretarako!»
zitiztean	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»
zimitarra makurra	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»
zapaburu	«—Isilik egoten badakik, zapaburu horrek, a ze sorpresa!»
zakurputza	«—Ez ni zirikatu, zakurputza! Hik konta ditzakeenak baino gizon gehiago hil ditiat, kristauak gehienak.»
hilurren	« Hilurren zegoenari atsedentzen uzteko pazientzia hartu zuen.»
gaztainkara	«Egun hartan udaberriko eguzkiak urrezko dizdizak ateratzen zituen adats gaztainkaratik .»
bidebanatze	« Bidebanatze batean sortaldekoak tentatu zituen, Getaria eta Oriorakoak...»
kakudun	«Hiru gailurrak gandor zorrotz batek lotzen zituen. Ipar haizeak bultzaturik bezala makurturik, ia kakudunak ziren.»
eroapen	«Lehenengo aldiz zebilen bidaia luze batean aitarekin, eta udaberria eta uda osoak zeuzkan honen jakintza eta eroapena kinkan jartzeko.»
kinkan jarri	«Lehenengo aldiz zebilen bidaia luze batean aitarekin, eta udaberria eta uda osoak zeuzkan honen jakintza eta eroapena kinkan jartzeko .»
ahalik	«Gartxoten nahia herritarrei ahalik poz eta zorion-amets handienak eskaintzea zen...»
begiradari ordaina eman	«Ez zion Mikeloten begiradari ordainik eman .»
aida batean	« Aida batean hasi ziren dantzak.»
aire	«Mikelotek erritmo saltakaria markatzen zuen danbor arin batez, aita aire ozenak jotzen zituen flauta hiru zulodunaz, bien orkatiletan kaskabiloak.»
kaskabilo	«Mikelotek erritmo saltakaria markatzen zuen danbor arin batez, aita aire ozenak jotzen zituen flauta hiru zulodunaz, bien orkatiletan kaskabiloak .»
gider	«Zorion oihuak Mikeloten barrenean, giderrak eskuetan zeuzkan, hiriko mila konturi ekin behar.»
iaio	«Gartxot iaioa zen oso, baina bertan baziren aurkari finak, ironiazko kontrakarrean abilak...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kontrakar	«Gartxot iaioa zen oso, baina bertan baziren aurkari finak, ironiazko kontrakarrean abilak...»
xendra	«Bi gazteak pentsamenduen xendran abiatu ziren, zein bere bide ezberdinetik.»
arraitsu	«Ilargirik gabeko gau arraitsu a, borondate misteriotsu batez zabaldutako izar sortek argiztatua.»
karraska	«Horrela hitz egiten zien Maiak seme-alaba kuttunei, lur azaleko izaki guztien musikaz, txoriaren deiaz, harrien karraska doiaz.»
doi	«Horrela hitz egiten zien Maiak seme-alaba kuttunei, lur azaleko izaki guztien musikaz, txoriaren deiaz, harrien karraska doiaz .»
orbain zizare	«Gurdiak dozenaka, abereak ehunka, gizonak milaka; amaierarik gabeko lerro bihurria. (...) Orbain zizare luze mugikor batek ebakitzen du mendia.»
handinahien	«Bihotza esperantzaz eta burua egitasmoz beterik, kanpainarik handinahienari ekin dio.»
hots egin	«Erregeak baroiei hots egin zien, armadak nekez jarraitzen zuelarik aurrera...»
egitasmo	«Bihotza esperantzaz eta burua egitasmoz beterik, kanpainarik handinahienari ekin dio.»
gar	«Gizonak pozik zeuden, gorputzak garren epelak bizkorturik eta jaki usain goxoak airean.»
ano	«Mokadurik onenak noble eta kapitainek jango zituzten, baina gerrari guztiek edukiko zuten okelarik anoan .»
arakatu	«...begiek eraso-itzalak zekuskiten goialdeetan, abangoardiak ingurua arakatu bazuen ere.»
pipinida	«Proventzako ardoa zerbitzatu zuten otoitzean ari zen Karlos pipinidaren mahaira; ezker-eskuin, Ekkehart seneskala eta jauregiko kondea, Antselmo.»
gutizia	«Turpinek bukatu ahala azkar asko ekin zieten afalkideek gutiziei , esku hutsez edo aitzodunez.»
erlaitz	«Ahots eta bertsoz, koblakariak gizonen espantua, erlaitz eta zintzurretakoa, ekarri zuen gogora...»
lauhazka	«Azkenean, entzule ororen buruan baroi heroikoen atzetik zihoazen, lauhazka garaile.»
zurrun	«Ez zuen ematen, inondik ere, iseka egiten zionik; Gartxotek ume handia bazirudien ere, begi zurrun horiek...»
heldu	«—Echium, sugeen hoskaden eta intsektuen helduen kontra.»
ahal	«Nirekin ere gogoratuko ahal zara!»
orbaindu	«—Echium, sugeen hoskaden eta intsektuen helduen kontra. Plantaina, zauriak errazago orbaintzeko ; ez ahal duzu erabiliko!»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

munta	«Mikelotek larritasuna sentitu zuen barnean, baina honen munta ezin aldera zitekeen Idoiaren nahikundeak sorrarazitako poztasunarenarekin.»
hede	«Emeki, lepotik zintzilik zuen hede fin bat atera eta Idoiari sartu zion burutik behera; zurezko lauburu txikia dilindan gelditu zen Idoiaren bular aldean.»
zela-abere	«Segituan ziren denak zelabereen gainean.»
nahikunde	«Mikelotek larritasuna sentitu zuen barnean, baina honen munta ezin aldera zitekeen Idoiaren nahikundeak sorrarazitako poztasunarenarekin.»
dilindan	«Emeki, lepotik zintzilik zuen hede fin bat atera eta Idoiari sartu zion burutik behera; zurezko lauburu txikia dilindan gelditu zen Idoiaren bularraldean.»
argotear	«...arbuiauak sarri, miretsiak batzuetan, beldurra zitzaien; jarduera misterioitsuak eta azti dohainak egozten zizkieten: argotearrak .»
kleriko	«Baroiak, kapitainak eta klerikoak festa-jantziz sartuko dira hirira.»
gibel	«Silok jakin dezala ez noala bere kontra, baina nire gibelean zeozertan hasiko balitz buelta eman eta txikitu nezakeela!»
gutartu	«Utz diezaiegun gutartzen! Gure mahaian edan dezatela! Haien arrazako batzuk bataiatuko dira, anima ditzagun gainerakoak.»
jori	«Erregeak hitz egiteari ekiten zionean –eta jario joria izaten zen– ideia eta erabaki uholdea zetozkien solaskideei.»
erronkari	«Oztopo tentea eta erronkaria inguratu edo hondoratu egiten zuen frankoen oldeak.»
olde	«Oztopo tentea eta erronkaria inguratu edo hondoratu egiten zuen frankoen oldeak .»
zirkin	«Bilerako dudak gorabehera, kontseilariak zirkinik gabe egingo zituzten egokitutakoak»
prefosta	«...bazekiten buruzagiak inork baino hobeto ezagutzen zituela diplomaziaren zertzeladak; prefosta , zenbait partidatan batera ari zen.»
sarrio	«...tunika beltz urreztatua galtza motzen gainera erortzen zitzaion, zeinen bukaeran sarrio larruzko bota arinak baitzeuden.»
hazpegi	« Hazpegi gazte ernea, zinezko begirada, dotoretasuna, berdinek gabeko maila...»
kalamastra	«Horrelako jende etorrerarik sekula ez zuen ikusi bertakoek gutxiesten zuten elizatxo kalamastrak .»
eginahal	«...izerdi patsetan zegoen entzun ziezaioten egin beharreko eginahal itzelagatik.»
izerdi patsetan	«... izerdi patsetan zegoen entzun ziezaioten egin beharreko eginahal itzelagatik.»
demasa	«Lehenengo, harritzarren arkitektura demasak zapaldu; gero, tarte neurgaitzera, arro zabala ikusiko du, mendikateak ertzetan.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

uzkurtu	«...baina ordukoan ohi baino gehiago azkartu zitzaion pultsua eta urdaila uzkurtu .»
olana	« Olana eta burdinazko hiri haren uniformetasun eta zabaltasunak eragindako zorabiotik ezin libratu Mikelot.»
arro	«Lehenengo, harritzarren arkitektura demasak zapaldu; gero, tarte neurgaitzera, arro zabala ikusiko du, mendikateak ertzetan.»
suspertu	«Laster suspertu zen Mikelot armadak sorrarazitako txunditzetik.»
zertan den	«Basajaun batek bakarrik argi liezagukek ongien oraingo egoera zertan den .»
sen	«Basajaun batek bakarrik (...) Haien senak inorenak baino hobeto igartzen ziek patuak etorkizunerako ezarritako bide ezberdinei.»
patu	«Basajaun batek bakarrik (...) Haien senak inorenak baino hobeto igartzen ziek patuak etorkizunerako ezarritako bide ezberdinei.»
kakaume	«—Leire kakaume bat besterik ez da! Txikia da eta oraindik andrakilekin ibiltzen da jostetan!»
jostetan	«—Leire kakaume bat besterik ez da! Txikia da eta oraindik andrakilekin ibiltzen da jostetan !»
gogaitzeko egina	«...ate zabalak, astunak, kuku-leihoz inguratuak, erasotzaileak gogaitzeko eginak .»
urkila	«...haritz berezko bi hormapikok egonkortua, urkila abegitsua kattagorri, basakatu edo Mikelot batentzat.»
kattagorri	«...haritz berezko bi hormapikok egonkortua, urkila abegitsua kattagorri , basakatu edo Mikelot batentzat.»
izakin	« Izakinak ardo eta garagardo saltzaileek bakarrik agortu zituzten.»
ospa egin	«Bi gaizkileek hanken ahalegin osoan egin zuten ospa , kaleetatik arineketan...»
ortziren hortza	«Gure mendietara itzuli eta gerrarako prestatu beharko genuke. Azkenean Ortziren Hortza esnarazi beharko dugu.»
zaputzean	«—Ez daukagu zereginik hemen — zaputzean Iñigo—. Gure mendietara itzuli eta gerrarako prestatu beharko genuke.»
men egitea	«—Seguru asko ez dira aski izango zergaren eta gure men egitea . Denok kristautzea nahi izango dute.»
herra	«Nola herrarik sentitu bizitzeko arrazoia zitzaion emakumearenganako?»
lain	«Iñigo ez zen buruzagirako lain . Gizon ona zen (...) baina antolatzeko, agintzeko, gobernatzeko, besterik behar da.»
errain	«Lasai hil zitekeen Ximeno zaharra, behin eta berriz eskerrak emanez Maiari horrelako errain jantziagatik.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

jantzi	«Lasai hil zitekeen Ximeno zaharra, behin eta berriz eskerrak emanez Maiari horrelako errain jantziagatik .»
hostaila	«Berriz ere segurtasuna haitz gainetan, ibaietatik harantz, hostailaren azpian. Lur hura etxe zuten, ama, aliatua.»
xuxurlan	« Xuxurlan hitz egin zion; inongo beharrik ez, franko ezkutariak euskaraz hitz erdirik ez baitzekiten.»
oniriko	«Arratsak aurrera ahala sinesgarritasunaren hedeetatik askatu zen elkarren arteko solas onirikoa .»
aldarrika	«Batzuk aldarrika , bestek itzultzen, elebidunei kexak azaltzeko eskatzen baten bat; patetikoa zen desordena.»
patetiko	«Batzuk aldarrika, bestek itzultzen, elebidunei kexak azaltzeko eskatzen baten bat; patetikoa zen desordena.»
suminduxe	«—Horixe... — suminduxe Turpin. Batetik bestera zebilen lau gizonen aurrean.»
oinordeko	«...oraingo lagun Ximenoren oinordekoak derrigor izango ziren noizbait seme Velascoren lehiakide.»
goititu	«...denetik edukitzera zegoen ohituta, eta horiek goititzera behartuko zuten.»
aldarte	«Mikelotek ez zekien frankoen aldarte mutur batetik bestera joan zitekeela?»
kuxkuxero	«Begirada kuxkuxeroak sentitzen zituen Mikelotek; mespretxuzkoak batzuk, bekaitz agian.»
pairamentsu	«...Errolani bezalaxe obedituko zioten gizon ausart eta pairamentsuak .»
bekaitz	«Begirada kuxkuxeroak sentitzen zituen Mikelotek; mespretxuzkoak batzuk, bekaitz agian.»
urkamendi	«Kanpamentuaren beste muturrean, bazter batean baina ikusgarri oso, urkamendia ...»
pilda	«Emakumeen taldetik aparte xamar, lurrian bazen gorputz bat, katez eta pildaz , gorpua bezain argal eta ihar.»
zarpa	«Dudan Gartxot, zaharra espero zutena izango ote zen, zarpetan antzara oina bazuen ere; kasualitatea?»
ihar	«Emakumeen taldetik aparte xamar, lurrian bazen gorputz bat, katez eta pildaz, gorpua bezain argal eta ihar .»
aienatu	«...gizon horren begirada zuzen eta sakonak aienatu zion zalantza.»
egonezinak egon	«Zure munduak nireari zer egingo ote dion egonezinak nago .»
ahoa bete hortz	« Ahoa bete hortz , jana irentsi ezinik.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zama-zama	«...gure etxera armaz zama-zama etorritako kanpotarrez eta bere burua leienda bizitzat duen neska kaska-kaska eginda batez fidatu naiz.»
hautu	«Ez zuen ulertzen, berriz, zaharraren hautua . Zergatik ez zuen bera aukeratu horrelako bilera baterako? Apetak eman bezala jokatu zuen zaharrak?»
kaska-kaska	«...gure etxera armaz zama-zama etorritako kanpotarrez eta bere burua leienda bizitzat duen neska kaska-kaska eginda batez fidatu naiz.»
apeta	«Ez zuen ulertzen, berriz, zaharraren hautua. Zergatik ez zuen bera aukeratu horrelako bilera baterako? Apetak eman bezala jokatu zuen zaharrak?»
lakar	«—Basati odol zaleak —Oneka, ahots lakarrez —. Manera finak, bai, eta gero?»
mandio	«—Izarpean edo mandio batean sarriago egiten dut lo harrizko etxeetan baino.»
errezela	«Gelako ilunenean errezela bat poliki ireki eta gizon bat hurbildu zen...»
ziztakoan	«Pertsona aurkitu zuen, baina espero zuen zahar jakintsu bat, egoera ziztakoan ulertuko duena.»
ostertz	« Ostertza oraindik eguzkiak leunki koloreztaturik, zortzi kideak basajaunak esandako lekuan kokatu ziren...»
jazo	«...ez zen, ordea, ezer xelebrikerik jazo ...»
akuilatu	«Errolan eta Olivier jakin-minak akuilatuta etorri ziren, eta baskoiei Jainkoaren hitza entzunarazi nahiz.»
erantzi	«Hori esan eta sudur babeskidun kaskoa erantzi zuen Errolanek.»
harramantza	«Gainerako guztiak harramantzaz jarraitu zitzaizkion kargan, Veillantif zenbait zalditako aldearekin zihoan aurretik.»
angon	«Lantzek armadurak lehertu zituzten, angonek haragiak urratu.»
durendal	«...troparen aurrean jarri, ikus zezaten, eta mugimendu zabal arin batez Durendal atera zuen zorrotik eta ahalik gorena jaso.»
sorbatz	«...ezkerrean ezpata motza zuen, sorbatz bakarrekoa.»
ibi	«...nolanahi ere, gaur bertan hartuko dugu Tuteran eta ibia babestuko!»
jazarri	«Hauxe proposatzen dizut, bil zaitezte zeuendarrekin iparsartaldeko bidean, ez dizuet jazarriko , ez zaizue inongo kalterik egingo.»
zirrara	« Zirrara ezkutatzeko ahaleginetan Musa. Familiatik aparteko maiteenen izenak xebreak ziren zaldun kristauaren ahotsaz.»
arantzatsu	«Mutarrif mintzatu aurretik isilune arantzatsua .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

xelebre	«Zirrara ezkutatzeko ahaleginetan Musa. Familiatik aparteko maiteenen izenak xelebreak ziren zaldun kristauaren ahotsaz.»
wali	«Eta neurri handi batean hori guztia Al Hussayni, Zaragozako waliari zor zitzaien, zeinak hitzarmena egin baitzuen (...) wali handiarekin.»
ataka	«...kapitain gazteena izanik moldatu nintzen bizirik iraundakoak atakatik ateratzeko. Eta heroitzat hartu ninduten!»
baliatu	«—Jakingo dugu zure hiriaren bakea meditatzeke baliatzen ...»
diosala egin	«Guardiek ez zioten diosalik egin , ez zen halako gauzen zalea...»
kuxinete	«...apartamentuetara igo, kuxinetan eseri eta mokadu baten zain gelditu zen. Berehala (...) pastak eta menda infusioa ekarri zizkieten zilarrezko erretiluan...»
erretilu	«...kuxinetan eseri eta mokadu baten zain gelditu zen. Berehala (...) pastak eta menda infusioa ekarri zizkieten zilarrezko erretiluan ...»
moezin	«Minaretetik moezinak otoitzerako bigarren deia kantatu zuen.»
xaxatu	«Helburua sartaldeko bi potentziak elkarren kontra xaxatzea zen, Karlomagoren franko erresuma eta Abd al-Rahmanen Espainia...»
ausiabantza	«Bembezarreko ausiabantzak gori zirauen Sulaymanen buruan.»
askazia	«Irakurri nuenean zin egin nuen yemendar askazia mendekatuko nuela, eta ez dut hori egin arteko onik izango.»
qarl erregea	« Qarl erregeari ahalik ongiena egin diezaiogun harrera.»
samin	«Gartxot Eunatetik gertu gelditu zen, belauniko lurrean negar saminean .»
alderrai	«"Nire herria ez da dagoeneko nazio alderrai ", pentsatu zuen erregeak nostalgiaz.»
frixtan	«Neskak ezin entzun. Norbaitek heldu zion frixtan Mikeloti eta lurrera bota.»
akigarri	«Errolan kondea zerbitzatzea zeregin akigarria zen...»
zaildu	«Zaharra berbera zen etorria, sartaldeko menditar zailduen ordezkari»
segaila	«Lodi izeneko menditar gerrari bat, urritxaren adarra bezain segaila zen...»
zazpi ahalak egin	« Zazpi ahalak egin da ere, emakume asko ostu zizkiguten. Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara...»
oniritzi	«Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara eta kristauek larrutik ordainduko dute! Oniritziko ahotsak.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

eurrez	«Zazpi ahalak eginda ere, emakume asko ostu zizkiguten. Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara...»
galarazi	«—Errege banintz zera egingo nitek, besteok baino hamar aldiz gehiago jatea galarazi hiri. Horrela urritasunik ez.»
preseski	«Gu, Akitanian, gogorki aritu gintuzuen frankoen kontra borrokan, gure erregearen familia bahitu zuten arte preseski .»
beldurrak airean jarri	«...eta horren izena aipatzen hutsak beldurrak airean jartzen zituen: Gartxot.»
magal	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke.»
maia	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke.»
bizitzeke	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke .»
doi	«Keinu doi batez gerarazi zuen Al Hussaynek guardien buruaren mugimendua...»
saldukeria	«—Eta jakina, memento erabakiorrenean egin duzu saldukeria! »
felido aireak eduki	«Sagututa zegoen katua, eta Al Hussayn, gizon lasaia, aliatu seguruak, felido aireak zeuzkan.»
sufi	«— Sufi horietakoa izango duzu orduan —marmarrean Sulayman, aurkariaren jokoan sartzen zelarik.»
zeken	« Zekena zinela esan diot Qarli, zikoitz alua; erraz erosiko zintuela.»
gandorregi	«...zure aurpegian ikusten dut, zure jokamolde lasaiegian, gandorregian .»
aisekien	«Kontuz ibil, ardi beldurtiena harrapatzen du otsoak aisekien .»
beretar	«Badoa karga oldarrean, gerarazten saiatzen dena beretarrek zanpatuko dute.»
otzandu	«Jarrai diezaiogun planari, moldatuko gara kristauak toki egokian ipintzen, edo otzantzen .»
doilor	«—Txantaje doilorra! » □
ilunbeltz	«Baroi nagusiak kontseiluko dendara sartu zirenean isil eta ilunbeltz ikusi zuten Karlomagno.»
kirioak airean	«Bi solairu beherago Matruh eta Aysun kirioak airean kanpokoari adi-adi.»
zurda	«Batzuen zurdak gerrirainokoak ziren, kopetan larruzko hede batekin lotuta. Gizonkote latzak, bi ahoko aizkora erraldoiak...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

gizonkote	«Batzuen zurdak gerrirainokoak ziren, kopetan larruzko hede batekin lotuta. Gizonkote latzak, bi ahoko aizkora erraldoiak...»
burrundara	«Hegoaldeko atean goranzko burrundara . Batzuek, besterik gabe, Qarl erregearen aurrean errenditu nahi zuten, errukia eskatuz...»
zabuka	«Dardaraz paretak, ikaraz lurra, zabuka atepak.»
buruan	«Euskaldunentzat ekaineko egun sakratu horren buruan Akelarrearen gaua hasten da.»
lizar	«Jendea lizar sakartuaren inguruan dantzan hasten zelarik...»
barrunbe	«...Leirek leize barrura eraman zuen gela txiki obal batera. Haratago oso sabai baxuko beste barrunbe bat zegoen.»
begirakune	«Orduan, orduan bakarrik jabetu zen Mikelot Leireren begirakunearen tristuraren handiaz.»
arieta	«Murailak eta atepak dardaraz jarri zituen frankoen tropen arieten talkak, baina zurezko egiturak ez ziren pitzatu.»
egonean	«Denborarik gehienez, halere, egonean mutila.»
pitzatu	«Murailak eta atepak dardaraz jarri zituen frankoen tropen arieten talkak, baina zurezko egiturak ez ziren pitzatu .»
zakar	«Halere, laster eraman zuten Idoia zeregin baxuagoetara; zakarra omen, eta baldarra zerbitzatzen, ontziteriarekin-eta.»
baldar	«Halere, laster eraman zuten Idoia zeregin baxuagoetara; zakarra omen, eta baldarra zerbitzatzen, ontziteriarekin-eta.»
bermatu	«Zaratak aztoratu zuen Mikelot. Gezi batek bermatuta zegoen zuhaitza zulatu zuen.»
ebasketa	«Ez gudurik, ez diru, emakume, ebasketarik .»
erti	«Zergatik eman ote zizkien Jainkoak musulmanei zientzia, ertia , kultura?»
eutsi	«Burumakur eta isilik kontseilariak, haserre eutsia ere bazebilen.»
hoben	«Boluntario azaldu zen, ezetza hobena litzateke. — Bedi! Gure azken saioa izango da...»
bedi	«Boluntario azaldu zen, ezetza hobena litzateke. — Bedi! Gure azken saioa izango da...»
ordoki	«Bardeetako basamortua Nafarroako hegoaldeko ordoki emankorren eta iparraldeko baso oparoen artean kokatzen zen.»
sutan egon	«...jakinik gainera Qarl erregea sutan egongo zela horrelako kanpaina negargarriaren ondoren.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ulu	«Hontz zuri baten uluak atzera ekarri zion esperantza.»
ardaila	«Gurdien aldetik borroka ardaila eta arabierazko hitzak.»
sigi-sagaka	«Lasterka xelebrean hasi zen, geldoki, nahita estropezu eginez, sigi-sagaka , behin ere ez gainerako presoen atzetik.»
zamari	«...han ez zen borrokarik; zamariak laztantzen eta kordei begiratzen hasi zen, mandazain batek egingo lituzkeen gauzak.»
zartailu	«...erasoari behar bezala aurre egin ez zioten konpainietan eta troparen aurrean zartailuz zigortu zituzten.»
laido	«Sulaymanen ihesak gainezka jarri zuen lapikoa, a ze laidoa Karlomagnoentzat.»
gantza	«—Kanpamentuetan sartzan ziren aiztoa txerri gantzetan bezala, berrogei bat lagun!»
ezkeroztik	«Gaurko eguna ezkeroztik soldaduak ez dira erlaxatuko.»
egotzi	«—Mintzatu berri naiz Iruñean utzi genituen klerikoekin. Laidotu eta egotzi egin dituzte hiritik. Inork ez du Kristoren hitza entzun nahi izan.»
gori	«Iruñeak laster ezagutuko du, bai, nire suminduraren goria ...»
erreus	«...mailatutako ezkutua eta baita lanabes erreusak ere gerra trofeo bihurtu ziren.»
mailatu	«... mailatutako ezkutua eta baita lanabes erreusak ere gerra trofeo bihurtu ziren.»
artean	«...izan ere, euskaldunen artean, ez zen nagusi, artean , maitasuna galarazten duen erlijioa.»
agerkunde	«Denek besarkatu zuten elkar negar batean, Mikelot ukituz agerkunde bat legez.»
hitz beste egin	«—Eta zer esan zinan? Hitz beste egin zuen Leirek.»
hortz!	«Inñigoren gerra garrasia entzun zuen Mikelotek. — Hortz! »
alarau	«Gorputz txikituen agoniako alarauak , amen dei etsiak seme-alaba ordurako hilei.»
brau	«...etxe baten hondarretatik irtendako franko talde handi xamar bat brau erori zen, giza harrapakinen aurka.»
heriosugar	«Eneko eta Fortunez, amaz gabetu zituztelarik, heriosugar eman zioten ihesari.»
marrantatu	«...orru eta arnas hots asaldatuak, oihu marrantatuak .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zarraizkidate	«—Oraintxe da mementoa, laguntzook –tonu jostarian–, zarraizkidate! »
asaldagarri	«...azken mezulariak albiste asaldagarri gehiago ekarri zituen.»
sona	«...zakarra itxuraz, baina zaldizko azkar eta nekaezinaren sona zuena.»
larratu	«Muturra lurraren arrasean desgogara larratzen , burua nerabearen gorputzetik gertu.»
gertu	«Muturra lurraren arrasean desgogara larratzen, burua nerabearen gorputzetik gertu .»
aieruz	«Gartxotek ezin zuen ulertu semeak aieruz esaten ziona...»
hitz-mitz	«Gartxotek hitz-mitz jarraitu zion Mikelot haluzinatuari.»
pausaje	«Aralarren gainean zihoala, pausoan, Atarrabiko mezulariak pausajeri jarraitzen zion.»
mamukara	«...belar gainetik oinezko handi baten eta zaldizko gazte baten silueta mamukarak .»
santio bidea	« Santio bideari sartaldetik sortaldera jarraitu besterik ez.»
ugatz	« Ugatz bat ikusi zuen beste putreengandik bereiz, luma eta bibote harroa erakusten.»
gurtu	«Izaki adimendunak ziren, Pirinioetako herriak gurturik , baina uzkurak kanpotarrentzat.»
uzkur	«Izaki adimendunak ziren, Pirinioetako herriak gurturik, baina uzkurak kanpotarrentzat.»
oinaztargi	« Oinaztargiak , bata bestearen ondoren, eta intziri patetikoak mutilaren erantzuna.»
haztamuka	« Haztamuka harantz ibili, aurkitu, higuin pittin batez sartu eta barrunbe beltz hartan kuzkur-kuzkur egin zen.»
kuzkur-kuzkur	«Haztamuka harantz ibili, aurkitu, higuin pittin batez sartu eta barrunbe beltz hartan kuzkur-kuzkur egin zen.»
eraile	«Leire, eta eraileak ; Idoia, eta zenbateraino izan daitekeen bizitza hauskorra...»
harranpa	«Muskuluetako harranpa eta oinetako zauriei ez sentituarena eginez igo zen...»
laga	«Zaragozako murailak ez zion odol paganorik isurtzen laga .»
mendratu	«Ez zuen federik, ala? Edo mendratzen ari zitzaien?»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

gomuta	«Gure obra handia eta ederra duk, eta iraun egingo dik bere gomutak datozen mendeetan.»
narras	«Bizitzaren berezko erritmoa eten egin da armadari, munstro narrasari , pasatzen uzteko.»
aiduru	«Urrundu dira otsoak baina gizakiengandik ospa doazen orein, basahuntz eta basurdeen aiduru daude.»
profitatu	«Abangoardiak goizeko freskura profitatu du bigarren mendateari ekiteko.»
piko	«Astobizkarko malda gero eta aldapatsuagoetatik, jira hona eta jira hara. Pikoak dira, ez dago atsedetik.»
okin ore	«Gorputz nagusia, erregeak gidatzen duena, okin ore a bezala luzatzen da.»
firfira	«Panikoaren haizea dabil firfira ; urratua eta sakabanatua tropa.»
zapparrote	«Zaldiak ez ziren lehengo berak, txikiak baizik, zapparroteak .»
zaugarri	«Euskal zaldizko gehienek ez daukate armadurarik, zaugarriak dira oinezkoen gezi eta lantzetarako.»
despit	«...gainerakoak pixkanaka jaisten dira, agerkera estu-estuan, Banu Qasi eta menditarren etengabeko erasoen despit .»
jakin dezanean	«Ekkekartek jakin dezanean Errolanek babesten diola bizkarra...»
estreinako	«Beste etsaiak, abere handi eta arinetan dabiltzanak eta erasotzen estreinakoak izandakoak hego-sartalderantz doaz, Errolanen atzetik.»
tarrapataka	«Hirugarrenak tente darrai, gazte bat, amorrazioz ero, tarrapataka doakio eta armadura lantza puska batez zeharkatzen du...»
biz	«Bigarren hesian ari da borrokan, bakarra gatazkan, eta biz biderkatu zaizkio kideak.»
jalgi	«Antselmoren tropak horrenbeste ikaratu dituen zarata ez da lainotik at jalgi .»
olifante	«Kapitainei ahalik zaratarik handiena egiteko agintzen die. Birika-beteka ekiten diote denek, adar eta olifante .»
oldoztu	«Ez daki Zaharrak zenbat kaskezur –kaskodun edo gabe– txikitu dituen gaur, zenbat ezkutu. Begira, entzuten, oldozten .»
garo	« Gar o artetik dozenaka gizon jalgitzen da, lonbardiarren ilararen luzera osoan...»
arerio	«Horrexegatik lortu du tropa etsiak banantzea, horrexegatik ari da arerio a detxematzen gutxika, jo eta jo.»
detxematu	«Horrexegatik lortu du tropa etsiak banantzea, horrexegatik ari da arerioa detxematzen gutxika, jo eta jo.»